

Irabazlea sailkatuta

A Multzoko partidarik erakargarriena gaur: Eskozia-Hego Afrika

Koldo Alduntzin / Glasgow

Berriemaile berezia

ORAIN lau urte William Webb Ellis Kopa irabazi zuen Hego Afrikak Johannesburg-en, eta horri eustea du helburua gaurtik aurrera. Aurrean Eskozia izango du, eta norgehiagoka hori izango da A Multzoko erakargarriena (Murrayfield, 18:00). III. Munduko Kopan ez zuten elkarren aurka jokatu.

Nolanahi ere, Springbooksek 19-29 irabazi zioten Galesi, Cardiffen, eta hori nola baiteko erreferentzia da, Eskozia eta Galesen artean ez baitago hainbesteko aldeirik. Eskoziak azkeneko V Nazioetako irabazi ondoren, hori ez zela izan kasualitatea erakutsi beharko die zaleei, etxean jokatu baitu sailkapen fase osoa.

Hego Afrikak ez zuen kanporaketarik jokatu azken fase honetara sartzeko, txapeldu-na baita. Aldiz, Eskoziak Portugal eta Espainia menderatu zituen, eta erraz gainera. V Nazioetakoan Frantzia menderatu hartu zuen, Parisen, baina Ingalaterraren aurka galdu egin zuen.

Jokatzeke bi era desberdin dute biek ala biek. Hego Afrika-rena ikusi berria dugu Hiru Nazioetako txapelketan. Bere neurria eman gabe aritzen, batez ere jokaldiak gauzatzerakoan. Aitzinean indartsuak dira, eta sarritan saiatu ziren kontrarioa hausten, baina huts asko egin zuten. Nolanahi, munduko bi onenen aurka gertatu zen hori.

Eskoziari dagokionez, bere ohiko joko bizi eta alaiari irudimena ezarri zion V Nazioetakoan eta etengabe jardun



ARTXIBOKOA

Eskozia eta Hego Afrikaren artean jokatu da gaurko partidurik interesgarriena.

zuen. Aitzinean zitzu bizian irekiko du baloia bereganatzea lortzen duenean, hiru laurdenetako lerroarekin jokatzeke asmotan zelairatuko baita. Armstrong-Townsend bikoa eta Smith-Bullock-Hilton lehen lerroan oinarrituko dira. Hego Afrika, berriz, Skinstad 3. Lerroa eta Joost Van der Wuisthuizen uztartze erdian.

Zeelandarrek Tonga bihurria aurkari

B Multzoan Zeelanda Berria eta Ingalaterra dira indartsuenak, eta haien esku egongo da zuzeneko txartela

eskuratzea. Horregatik, gaurko Zeelanda Berria-Tongak (Bristol, 16:00) ez du erakargarritasun berezirik izango. Zeelandarrak txapel-dunordeak dira, eta horregatik ez zuten jokatu behar izan kanporaketarik. Tongak, aldiz, Samoa, Fiji eta Australiaren kontra jokatu eta galdu ondoren, bigarren kanporaketan lortu zuen sailkatzea.

Samoa-Japoniak (Wrexham, 14:00), berriz, oso lehia ikusgarria izango dute, biek egiten baitute joko bizia eta mugikorra. D Multzoko neurketa da, eta garaileak Galesekin berdinduko du.

Japoniak Pacific Rim irabazi zuen, eta ez zuen arazorik ukan azken fase honetara sartzeko. Samoak soilik 25-13 galdu zuen Australiaren aurka. Joan den apirilean Japoniak 37-34 irabazi zion Samoari, test-partidan.

Azkenik, E Multzoan Australiak eta Errumaniak lehen partida jokatu dute (Belfast, 20:00). Wallabiesak Kopa irabazteko helburuarekin hasiko dira, eta Errumaniaren lehen zatia gaindituta, Australiak ez luke arazorik ukan behar. Errumaniak ukan duen emaitzarik onena Irlandaren kontra lortu zuen, 53-35 galduta.

Frantziak aise irabazi zion Kanadari (33-20)

Frantziako selekzioa izan zen nagusi atzo Beziarsen errugbi zelaian jokaturako C multzoko partidari. 33-20 irabazi zion Kanadako selekzioari. Atsedenaldira irabazten joan zen Frantzia (18-10), eta bigarren goan markagailuko alde hori handitu baino ez zuen egin.

Espainiak galdu egin zuen Uruguarekin (15-27)

Uruguako selekzioak serio jokatu zuen atzo; Espainiakoak, berriz, urduri. 0-3 hasi zen irabazten Espainia, baina berehala aurreratu zen Uruguai, 10-3. Hortik aurrera hegoamerikarrak izan ziren nagusi, eta txapelketako lehen garaipena lortu zuten.

Ingalaterrak jipoia eman zion Italiari (67-7)

Etxean jokatzeko mesede itzela egiten dio Ingalaterrako selekzioari. Hori esan daiteke, behintzat, atzo Londresko zelaian jokatu zuen partida ikusi ostean. Sekulako egurra eman zion Ingalaterrak Italiako selekzioari Londresko zelaian, eta 67-7 irabazi zion.

Irlandak ere egurra Estatu Batuei (53-8)

Partidua hasi bezain pronto jarri zen aurretik atzo Irlandako selekzioa markagailuan, eta Estatu Batuei ezer gutxi egiteko aukera eman zien. Zortzian gelditu zen markagailuan Estatu Batuei selekzioa, eta Irlandak nahi bezala jokatu zuen. Azkenean, 53-8.

Atletismoa

Luis Miguel Martin
korrikalari
madrildarrak
irabazi du
Lizarrako Milia

Abel Anton
maratoilaria
hamabigarren
sailkatu da

Kristina Berasain / Iruñea

LUIS MIGUEL MARTIN korrikalari madrildarra nagusitu zen atzo Lizarrako Milian. Martinen atzetik Barakaldoko Igor Murga ailegatu zen helmugara, eta, hirugarren, berriz, Raul Amatriain nafarra sailkatu zen. Abel Anton munduko txapelduna hamabigarren izan zen atzoko lasterketan.

Lizarrako Inmaculada pasealekuak hartu zuen, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Iranzu Elkarreak antolatutako lasterketa. Gaztetxoek aritu ziren lehenik, eta gero milia herrikoia eta gizonezko eta emakumezkoen abiadura probak egin zituzten. Korrikalari guztiek zirkuitura hurbildutako jendetzaren txaloak jaso zituzten.

Lizarratarrek arratsaldeko 19:15 arte itxaron egin behar izan zuten gonbidatuen lasterketa ikusteko. Abel Anton ikustera jende ugari bildu zen. Soriako korrikalariak proba amaitzerakoan adierazi zuenez, ez zuen irabaztea espero, bera maratoilaria delako, baina Lizarrako giroa nabarmendu zuen, eta korrika egiten gozatu egin zela azpimarratu.

Maratoi erdiko mundiala gaur

Kenyako selekzioa da gaur faborito maratoi erdiko munduko txapelketan. Izan ere, Paul Tergat eta Tegla Lorupe kenyarrek aukera ugari dituzte gaurko proba irabazteko, Thys hegoafrikararekin batera.

Italiako Palermon jokatuko da gaurko munduko txapelketa, eta irabazleak 40.000 dolarreko saria poltsikoratuko du.